

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

2/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 23koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara egokitzeari, eta onespena ematea abenduaren 12ko 16/2025 Foru Araua aldatzeari

2025eko apirilaren 29an apirilaren 29ko 3/2025 Legea onartu zen. 3/2025 Legearen bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartu zuena, aldatu zen, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2024ko azaroaren 13ko, 2024ko abenduaren 23ko eta 2025eko otsailaren 6ko erabakia aintzat hartuta; izan ere, batzorde horrek aho batez erabaki zuen Ekonomia Ituna aldatzea onartzeko erabili zen prozedura berari helduta.

Aldaketa horren ondorioz aldaketak egin behar izan dira zergen foru arauetan, Ekonomia Itunaren testu berrira moldatu behar izan baitira. Aldaketa horiek Ekonomia Ituna aldatzen duen legearen ondorio berak daukate.

Horrenbestez, bidezko aldaketak egiten dira jarraian zehaztuko diren zergak arautzen dituzten foru arauetan: Sozietateen gaineko Zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga.

Sozietateen gaineko Zerga dela eta, 10 milioi eurotatik 12 milioitara igo da eragiketen bolumenaren atalasea, irizpidetzat hartzen dena zerga ordainarazteko eta egiaztatze eskumena nork daukan zehazteko, zerga egoitza non dagoen kontuan hartuz, eta aplikatu beharreko arautegia finkatzeko. Horrez gainera, Foru Ogasunari ematen zaio eskumena foru arautegia aplikatzeko eta zerga horren inguruko ikuskapenak egiteko zerga egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboek, aurreko urteko eragiketen bolumena 12 milioi eurotik gorakoa dutenei, hain zuzen ere, baldin eta EAEn egin badute aurreko ekitaldiko eragiketa guztien ehuneko 75 gutxienez.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, eragiketen bolumenaren atalasea sozietateen gaineko zergan bezala eguneratzen da. Zerga honetan aldaketak ordainarazpen tokia zehazteko eta egiaztapenerako eta ikuskapenerako eskumenari bakarrik eragiten dio.

Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga dela eta, horren araudia zergaren konfigurazio berrira egokitzen da; izan ere, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga lehen Estatuak une bakoitzean ezarritako arau berak aplikatzen izan zaizkion zerga itundua izan da eta orain araudi autonomoko zerga itundua da.

Beste alde batetik, zerga premiazko araugintzako dekretu honen bidez zenbait aldaketa egiten dira talde multinazionalentzat eta talde nazional handientzat gutxienerako ezarpen maila globala bermatzeko zerga osagarri bat ezartzen duen foru arauan. Aldaketa horiek 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak. Beraz, presazkoak dira. Aldaketa horiek araugintzako teknikak eragin dituzte, bermatu behar baita foru arautegia guztiz bat etortzea nazioarteko erregelekin eta arauekin -bai ELGAren esparrukoekin, bai Europar Batasunakoekin- eta foru arautegia (EB) 2022/2523 Zuzentarauari egin zaion akatsen zuzenketara moldatu behar baita.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inaktuaren txosten laburra.

Horrenbestez, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko zergen arloko araudia egokitzea apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Ekonomia Itunean sartutako aldaketetara.

Lehenengoa. Aldaketa: 37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, sozietateen gaineko zergarena.

Aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan (2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 2. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira eta honela gelditzen dira:

“1. Foru arau honetan xedatzen dena zerga egoitza Araban daukaten zergadunei aplikatuko zaie.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatzen dena ez zaie aplikatuko bi inguruabar hauetan dauden zergadunei:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izatea.

- Aurreko ekitaldian egindako eragiketen bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egitea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan egitea.

2. Foru arau honetan xedatzen dena zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan daukaten zergadunei ere aplikatuko zaie, inguruabar hauek gertatuz gero:

- Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izatea.

- Aurreko ekitaldian lurralde erkidean egindako eragiketarik eragiketa guztien ehuneko 75 baino gutxiago bada.

- Aurreko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin izana edo, Araban eta zerga egoitza ez dagoen beste lurralde historiko batean egin badira, eragiketa bolumenaren zatirik handiena Araban egin izana.

3. Foru arau honetan xedatzen dena zerga egoitza lurralde erkidean daukaten zergadunei ere aplikatuko zaie, hiru inguruabar hauek gertatuz gero:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izatea.

- Eragiketen ehuneko 75 edo gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan egitea. Salbuespena: zergaduna egoitza lurralde erkidean daukan zerga talde bateko kidea bada, ekitaldi horretan eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan egin badira soilik aplikatuko da foru araudia.

- Araban egindako eragiketen bolumena beste lurralde historiko bietako bakoitzean egindakoa baino handiagoa izatea.”

Bi. 3. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Arabako Foru Aldundiak honela ordainaraziko du zerga:

a) Berak oso-osorik, subjektu pasiboaren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan ez bada.

b) Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan bada, Araban egindako eragiketen bolumenaren proportzioan.”

Hiru. 132. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Arabako Foru Aldundiak kasu hauetan ikuskatuko du zergaren ordainketa:

a) Zergadunaren zerga egoitza Araban dagoenean; salbuespena: zergadunaren aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan bada eta ekitaldi horretako eragiketen bolumenaren ehuneko 75 gutxienez lurralde erkidean egin badu edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetan egin baditu.

b) Zergadunaren zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan egonez gero, ikuskapena kasu hauetan abiaraziko da: zergadunaren eragiketen bolumena aurreko ekitaldian 12 milioi euro baino gehiago izan bada eta ekitaldi horretako eragiketen bolumenaren ehuneko 75 gutxienez lurralde erkidean egin ez badu eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin baditu (edo Araban eta zerga egoitzarik ez daukan beste lurralde historiko batean egin baditu, haien eragiketen bolumenaren proportziorik handiena Araban egin badu).

c) Zergadunak lurralde erkidean badauka zerga egoitza, aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izan bada, ekitaldi horretan eragiketa guztien ehuneko 75 edo gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan egin baditu edo denak lurralde erkidegoko zerga talde bateko kide bada zergaduna eta, gainera, Araban gainerako lurralde historikoetan egindako eragiketa bolumena baino proportzio handiagoa egin badu.”

Bigarrena. Aldaketa: 21/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena.

Aldaketa hauek egiten dira Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauan (2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 1. artikulua 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“2. Foru arau honetan xedatzen dena honako hauei aplikatuko zaie:

a) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki ez eta Arabako Lurralde Historikoan establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta erakundeei, foru arau honetako 13. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.

Nolanahi ere, foru arau honen 13. artikulua 4. apartatuan aipatzen diren kasuetan, foru arau honetan xedatzen dena kasu hauetan baino ez da aplikatuko: errentak ordaintzen dituzten erakundeei edo establezimendu iraunkorrei Arabako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren araudia aplikatu behar zaienean, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 2. artikuluan edo zerga honi buruzkoan eta apartatu honen b), c) eta d) letretan ezartzen denarekin bat etorritik.

b) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki gabe Arabako Lurralde Historikoan establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta erakundeei. Salbuespena: bi inguruabar hauek gertatuz gero, ez zaie aplikatuko:

- Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izatea.

- Aurreko ekitaldian egindako eragiketen bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egitea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan egitea.

c) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki gabe Bizkaiko edo Gipuzkoako Lurralde Historikoan establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta erakundeei, baldin eta:

- Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izatea.
- Aurreko ekitaldian lurralde erkidean egindako eragiketak eragiketa guztien ehuneko 75 baino gutxiago bada.
- Aurreko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin badira edo, Araban eta zerga egoitza ez daukan beste lurralde historiko batean egin badira, eragiketa bolumenaren zatirik handiena Araban egindako eragiketena bada.
- d) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki gabe lurralde erkidean establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta erakundeei, baldin eta:
 - Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izatea.
 - Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumenaren ehuneko 75 gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan egin badira.
 - Araban egindako eragiketen bolumena beste lurralde historiko bietako bakoitzean egindakoa baino handiagoa bada.

Hala ere, d) letra honetan aipatzen diren kasuetan, foru arau hau aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da zerga talde bateko kide diren erakunde zergadunek, establezimendu iraunkorraren zerga egoitza lurralde erkidean dutenek, egindako eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidean eginak izatea.

3. Zergadunak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudiko betekizunak betetzen baditu eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga ordaintzea hautatzen badu, aukerako araubidea aplikatzeko Arabako Lurralde Historikoaren araudia hartuko da kontuan, baldin eta EAEn lortutako errenta Espainian guztira lortutako errentaren zatirik handiena bada eta Araban beste bi lurralde historikoetan baino gehiago lortu bada.

Zergadunak itzulketa jasotzeko eskubidea badauka, Arabako Foru Aldundiak ordainduko du, errentak Espainiako lurraldearen barruan non lortu dituen kontuan eduki gabe.”

Bi. 2. artikulua 1. apartatuaren b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Espainiako lurraldean egoitzarik ez daukaten pertsona fisikoei eta erakundeei errentak lortzen badituzte establezimendu iraunkorren bitartez:

a) Pertsona fisikoaren edo erakundearen zerga egoitza Araban badago eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan ez bada, AFAk ordainaraziko du haren zerga osoa.

b) Pertsona fisikoaren edo erakundearen zerga egoitza non dagoen kontuan eduki gabe, Arabako Lurralde Historikoan bakarrik jarduten badu eta aurreko ekitaldian egindako eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan bada, AFAk ordainaraziko du haren zerga osoa.

c) Zergadunak Arabako Lurralde Historikoan eta beste lurralde batzuetan (foru lurraldeak zein lurralde erkideak) jarduten badu eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan bada, AFAk Araban egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordainaraziko du zerga.”

Hiru. 13. artikulua 2. apartatuaren j) letra edukirik gabe uzten da.

Lau. 14. artikulua 1. apartatuaren a) letra, b) letraren 3. zenbakia eta k) letra aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“a) Pertsona fisikoek jasotzen dituzten kopuru hauek: Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 9. artikuluan aipatzen diren errentak eta 17. artikuluan 2. apartatua aipatzen diren lanaren gauzako etekinak. Horiez gainera, beharrianetarako prestazioak ere bai, hain zuzen ere urtarrilaren 11ko 8/2008 Errege Dekretuak, kanpoan bizi diren eta itzultitako espainiarren aldeko beharrianetarako prestazioa arautzen duenak, ezartzen duenaren arabera ematen direnak.”

“3. Zergaduna egoiliar ez den erakundea izanez gero, eskualdaketak ez baditu betetzen Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Legeak 34. artikuluan (Erakundeetako partaidetza eskualdatuz lortutako errenten gaineko zergapetze bikoitza kentzea) salbuespena aplikatzeko ezartzen dituen baldintzak.”

“k) Kultura, hezkuntza eta zientzia alorrean sinatutako nazioarteko lankidetzak akordio eta hitzarmenen ondorioz edo garapenerako lankidetzarako euskal planaren edo antzeko plan baten bidez pertsona fisikoek administrazio publikoetatik jasotzen dituzten beka eta bestelako diru kopuruak.”

Bost. 24. artikuluan 5. apartatua edukirik gabe uzten da eta artikulua beraren 1., 4. eta 6. apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“1. Oro har, zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten etekinen zerga oinarria etekinen zenbateko osoa izango da. Zenbateko osoa Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Legean ezarritako arauak aplikatuta zehaztuko da. Ezin aplikatu izango da 100etik beherako integrazio ehunekorik.”

“4. Ondare irabazien zerga oinarria kalkulatzeko ondoko arauak aplikatuko zaizkio ondarean gertatzen den aldaketa bakoitzari: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarenak, IV. tituluaren V. kapituluaren 1. apartatukoak eta 48. artikuluan 1. apartatukoak izan ezik) eta 52. artikuluan ezartzen dituenak.

Erakundea egoiliarra ez bada eta ondare irabaziaren sorburua kostu gabeko eskuraketa izan bada, irabaziaren zenbatekoa eskuratutako elementuak merkatuan daukan balio normala izango da.

Foru arau honen 13. artikuluan 2. apartatuaren k) letraren c’) letran aipatzen diren ondare irabaziei dagokienez, beren sorburua Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera egoitza zerga informazioa trukatzeko ez den herrialde edo lurralde batean duten erakundeetako eskubideak edo partaidetzak eskualdatzea izan bada, eskualdaketaren balioa Arabako lurraldean dauden ondasun higiezinak edo haiek gozatzeko eskubideak eskualdatu direnean merkatuan eduki duten balioaren proportziozkoa izango da.”

“6. Zergadunaren egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean badago, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

1. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako etekinen zerga oinarria kalkulatzeko ondoko hauek kendu daitezke:

a) Pertsona fisikoaren tributazioan, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarenak, ezartzen duenarekin bat etorritik kengarriak diren gastuak, baldin eta zergadunak frogatzen badu gastuok zuzenean lotuta daudela Espainian lortutako etekinekin eta lotura ekonomiko zuzena eta ezeztazina dutela Espainian egindako jarduerarekin.

b) Erakundearen tributazioan, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, ezartzen duenarekin bat etorritik kengarriak diren gastuak, baldin eta zergadunak

frogatzen badu gastuok zuzenean lotuta daudela Espainian lortutako etekinekin eta lotura ekonomiko zuzena eta ezeztazina dutela Espainian egindako jarduerarekin.

2. Ondare irabazien zerga oinarria kalkulatzeko ondoko arauak aplikatuko zaizkio ondarean gertatzen den aldaketa bakoitzari: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, IV. tituluaren V. kapituluaren 1. artikuluan ezartzen dituenak (48. artikuluan 1. apartatuak izan ezik) eta 52. artikuluan ezartzen dituenak.

Apartatu honetan xedatzen dena hauei ere aplikatuko zaie: Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera egoitza zerga informazioaren truke efektiboa dagoen Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean duten zergadunei.”

Sei. 26. artikuluan a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 91. artikuluan xedatutakoaren arabera emariengatik aplikatu daitezkeen kenkariak.

Zazpi. 27. artikuluan 1. apartatuaren c) letra edukirik gabe uzten da.

Zortzi. 30. artikuluan 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunek lortutako errentei dagozkien atxikipean eta konturako sarrerak Arabako Foru Aldundiak eskatuko ditu kasu honetan: foru arau honen 13. artikuluan xedatzen denaren arabera errentak Araban lortuzat jotzen direnean.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, foru arau honen 13. artikuluan 2. apartatuaren f) eta g) letretan, h) letraren a’) letran, k) letraren a’) eta c’) letretan eta 3. apartatuan aipatzen diren kasuetan atxikipean Arabako Foru Aldundiak eskatuko ditu Araban egindako eragiketen bolumenaren proportzioan, Ekonomia Itunaren I. kapituluaren 3. atalean ezarritako arau bereziak aplikatuz.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren kasuetan atxikipean Arabako Lurralde Historikoko araudiaren arabera ordainduko dira erakunde edo establezimendu ordaintzaileari sozietateen gaineko zergaren edo zerga honen Arabako Lurralde Historikoko araudia aplikatu behar bazaio.”

Bederatzi. 40. artikuluan 1. apartatuaren azken paragrafoa edukirik gabe uzten da eta apartatu beraren azkenurreko paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Aurreko a), b) eta c) letretan xedatzen denari dagokionez, errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan ezartzen denari jarraikiz.”

Hamar. Zortzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Aurreko apartatuan ezartzen dena aplikatzeko, kontuan edukiko da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 49. artikuluan ezartzen duena, eta hura garatzen duen araudia ere bai.”

Hamaika. Lehenengo xedapen iragankorra aldatzen da eta honela geratzen da:

“Lehenengoa. Pertsona fisikoak diren establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunei Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren lehenengo, zazpigarren eta zortzigarren xedapenak iragankorretan ezartzen dena aplikatuko zaie.”

Hirugarrena. Aldaketa: Balio erantsiaren gaineko zergaren Araua, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak onartzen duena.

Aldaketa hauek egiten dira urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak onetsi zuen Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko Arauan (2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 2 bis artikulua lehenengo eta bigarren apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du honako arau hauek aplikatuz:

1. Subjektu pasiboak aurreko urtean egindako eragiketen guztirako bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan ez bada eta beraren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago, Arabako Foru Aldundiari ordaindu behar dio zerga, eragiketak non egin dituen kontuan eduki gabe.
2. Subjektu pasiboak aurreko urtean egindako eragiketen guztirako bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan bada eta eragiketa guztiak Araban egin baditu, Arabako Foru Aldundiari soilik ordaindu behar dio zerga, zerga egoitza non daukan kontuan eduki gabe.
3. Subjektu pasiboak Arabako Lurralde Historikoan eta beste lurralde batzuetan jarduten badu eta aurreko urtean egin dituen eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan bada, Arabako Foru Aldundiari Araban egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaindu behar dio zerga, zerga egoitza non daukan kontuan eduki gabe (eragiketen bolumena artikulua honetan ezarritako lotura puntuen arabera zehaztu behar da).

Bi. Eragiketen guztirako bolumena hauxe da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun emateak eta zerbitzuak direla eta jasotako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun errekgua (egonez gero) alde batera utzita.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen bolumena hartuko da kontuan 12 milioi euroko kopurua zenbatzeko. Jardueran aritutako lehen urtea egutegiko urtea ez bada, kopuru hori kalkulatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketen bolumena oinarritzat hartu eta urte osoko zenbatekoa kalkulatu behar da.”

Bi. 167. artikulua hirugarren, laugarren eta zazpigarren apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“Hiru. Honako hauek Arabako Foru Aldundiari bakarrik aurkeztu behar diote autolikidazioa:

1. Zerga egoitza Araban daukaten subjektu pasiboek, baldin eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan ez bada, eragiketak non egin diren kontuan eduki gabe.
2. Eragiketa guztiak Arabako Lurralde Historikoan egin dituzten subjektu pasiboek, baldin eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan bada, zerga egoitza non dagoen kontuan eduki gabe.
3. Zerga egoitza Araban daukaten subjektu pasiboek, eragiketak non egin diren eta haien zenbatekoa kontuan eduki gabe, jarduera hauek egin badituzte:
 - a) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategiek eta arrantza ontzien armadoreek beren soro, ustialeku edo arrantzuetako produktu naturalak, eraldatu ez direnak, ematea.
 - b) Garraio zerbitzuak, ethez aldatzeko zerbitzuak, atoi zerbitzuak eta garabi zerbitzuak barne.

c) Garraiobideen errentamenduak.

4. Batasunaren barruan garraiobide berriak eskuratzen dituzten norbanakoek edo pertsonak eta erakundeak, baldin eta beren eragiketak balio erantsiaren zergaren kargatik erabat salbuetsita badaude edo haren kargapean ez badaude eta garraiobide berriak behin betiko matrikulatzen badira Arabako Lurralde Historikoan.

5. Aurreko zenbakian xedatzen dena eragotzi gabe, zerga zor guztia edo haren zati bat kentzeko eskubidea ematen ez duten eragiketak baizik egiten ez dituzten subjektu pasiboek, bai eta enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoez ere, Batasunaren barruan zergapeko ondasunak eskuratzeagatik, berek hautatzen badute edo arau honen 14. artikulua erabiltzen apartatua ezarritako muga gainditzen badute, eta zerga egoitza Araban badaukate.

6. Araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun errekaruaren araubidean dauden subjektu pasiboek Batasunaren barruan egindako eskuraketengatik, zerga egoitza Araban edukiz gero.

Lau. Arabako Lurralde Historikoan eta beste lurralde batzuetan jarduten duten subjektu pasiboek aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan bada, Arabako Foru Aldundiari eta diharduten lurraldeetako zerga administrazioei aurkeztu behar diete autolikidazioa. Hori dela eta, honako erregela hauek aplikatuko dira:

1. Subjektu pasibo batek lurralde batean baino gehiagotan jarduten badu eta eragiketen zenbatekoagatik administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar badio zerga, likidazioaren emaitza administrazio eskudunei egotziko zaie, subjektu pasiboak egutegiko urtean lurralde bakoitzean egindako ondasun emate eta zerbitzuengatik (kargapekoengatik zein kenkarirako eskubidea sortzen dutenengatik) lortutako kontraprestazioen kopuruaren arabera, balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita.

2. Egutegiko urte bakoitzean behin-behinean aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira.

Jarduera hasten den egutegiko urteko likidazio aldietan behin-behinean aplikatu beharreko proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatu du bere ustez lurralde bakoitzean egingo dituen eragiketak kontuan hartuta; hala ere, azkenean erregularizazioa egingo da. Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, behin-behineko beste proportzio bat aplikatu daiteke honako kasu hauetan:

a) Bategitea, bereiztea eta aktiboak ekartzea.

b) Lurralde erkidean edo foru lurraldean jardueraren bat hastea, amaitzea, zabaltzea edo murriztea, baldin eta erregela honen lehen paragrafoan zehaztutako irizpidearen arabera kalkulatuak proportzioa nabarmen aldatzen bada.

Aldaketa nabarmenat jotzeko ezinbestekoa da edozein lurraldetan aplikatu beharreko proportzioa gutxienez 15 puntu portzentual aldatzea.

Beste proportzio bat aplikatzeko, ezinbestekoa da alde aurretik subjektu pasiboak Ekonomia Itunaren III. kapituluaren 2. atalean ezarritako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari jakinaraztea, zerga foru administrazioei eta administrazio erkideari ordaindu behar izanez gero. Zerga foru administrazioei soilik ordaindu behar bazaie, subjektu pasiboak ikuskatzeko eskumena daukan administrazioari egin behar zaio jakinarazpena.

3. Zergaren egutegiko urte bakoitzeko azken autolikidazioan subjektu pasiboak behin betiko proportzioak kalkulatu dituzten aldi horretan egindako eragiketen arabera, eta aurreko likidazio aldietan administrazio bakoitzari aurkeztutako aitortzen erregularizatuko ditu.

4. Subjektu pasibo horiek aurkezten dituzten autolikidazioetan nahitaez adierazi behar dira aplikatu beharreko proportzioak eta proportzio horien ondorioz administrazio bakoitzari dagokion kuota.”

“Zazpi. Zergaren ikuskapena irizpide hauen arabera egingo da:

1. Arabako Lurralde Historikoko Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak egingo du honako kasu hauetan:

a) Subjektu pasiboak zerga Arabako Foru Aldundiari bakarrik ordaindu behar badio.

b) Subjektu pasiboak zerga lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen badu eta zerga egoitza Araban badauka, lurralde erkidean egindako eragiketak direla eta Estatuko Administrazioarekin lankidetzan aritzea eragotzi gabe. Honek administrazio eskudun guztietan izango ditu ondorioak, are haiei tributazioan dagokien proportzioan ere.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian lurralde erkidean eragiketen ehuneko 75 egin badu gutxienez (zehaztutako lotura puntuen arabera), eskumena Estatuko Administrazioak edukiko du; honek ez du eragotziko Foru Aldundiaren lankidetzat. Ikuskapen lanen ondorioz hainbat administrazioi dagokien zor bat sartu edo kopuru bat itzuli behar bada, kobrantza edo itzulketa Arabako Foru Aldundiak egingo du eta gero, beharrezkoa bada, administrazioek konpentsazioak egingo dituzte beren artean. Ikuskapen organoek beren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

c) Subjektu pasiboaren zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan egonez gero, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 12 milioi euro baino gehiago izan bada, ekitaldi horretako eragiketen bolumenaren ehuneko 75 gutxienez lurralde erkidean egin ez badu eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin baditu (edo, Araban eta zerga egoitzarik ez daukan beste lurralde historiko batean egin baditu, eragiketen bolumenaren proportziorik handiena Araban egin badu).

d) Subjektu pasiboak lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen badu zerga, zerga egoitza lurralde erkidean badauka, aurreko ekitaldian egindako eragiketa guztien ehuneko 75 gutxienez EAEn egin badu, eta EAEn egindako eragiketa guztiak (edo gehienak) Araban egin baditu; nolana ere, Arabako Foru Aldundia Estatuko Administrazioarekin lankidetzan ariko da lurralde erkidean egindako eragiketak direla eta. Honek administrazio eskudun guztietan izango ditu ondorioak, are haiei tributazioan dagokien proportzioan ere.

Aurreko letran ezarritakoa gorabehera, lurralde erkideko erakunde taldeetako araubide berezira lotutako erakunde kasuan, lurralde historiko honetako Zerga Ikuskatzaitzak ikuskatuko ditu; eta, beraz, lurralde erkideko taldeetako kanpo geldituko dira aurreko ekitaldian egindako eragiketen ehuneko 100 egiten dituztenean, EAEn, ezarritako konexio puntuekin bat, eta euskal lurraldean egindako eragiketen bolumen proportzio handiena edo dena Araban egin denean.

2. Ikuskapen jarduketak beste administrazio batek eginez gero, egintzat joko dira Arabako Foru Aldundiak egiaztapenaren eta ikerketaren arloan daukan ahalmenak gorabehera, eta Aldundiaren jarduketek ez dute edukiko ondorio ekonomikorik zergadunentzat administrazio eskudunetako organoen jarduketaren ondoriozko behin betiko likidazioei dagokienez.

Arabako Foru Aldundiak ez badauka ikuskatzeko eskumena, eragiketen bolumena kalkulatzeko eragina izan dezaketen eragiketa guztiak egiaztatuz ahal izango ditu, non egin diren kontuan hartu

gabe, ikuskatzeko eskumena daukan zerga administrazioari egiaztapenaren berri emateko ez beste ezertarako.

3. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioek subjektu pasiboarentzat ere izango dituzte ondorioak likidatutako betebeharretan. Nolanahi ere, gero administrazio eskudunek behin betikoak beren artean adostu ahal izango dituzte.”

2. Artikulua. Aldaketa: 16/2025 Foru Araua, abenduaren 12koa, talde multinazionalentzat eta talde nazional handientzat gutxieneko ezarpen maila globala bermatzeko zerga osagarri bat ezartzen duena.

Aldaketa hauek egiten dira 16/2025 Foru Arauan (16/2025 Foru Araua, abenduaren 12koa, talde multinazionalentzat eta talde nazional handientzat gutxieneko ezarpen maila globala bermatzeko zerga osagarri bat ezartzen duena) (aldaketa horiek 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 12. artikulua 1. apartatuaren b) letraren i) azpiapartua aldatzen da eta honela geratzen da:

“i) Partaidetza handia ez izatea eta dibidenduak edo beste mozkin batzuk jasotzen dituen edo jasotzeko eskubidea duen erakunde eratzaillearen esku urtebete baino aldi laburragoan egon izana banatzen den mozkin eskatu daitekeenean.

Partaidetza ez da handia taldeak daukan partaidetza portzentajea erakunde horren funts propioen edo boto eskubideen ehuneko 10 baino txikiagoa bada banatzen den mozkin eskatu daitekeenean edo eskualdatzen denean”.

Bi. 16. artikulua 10. apartatua ezabatzen da.

Hiru. 22. artikulua 6. apartatuaren f) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“f) a) - e) bitarteko letretan azaltzen diren errentak sortzen dituzten ondasun aktiboen irabazi garbiak.”

Lau. 31. artikulua 4. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“4. Aurreko 3. apartatuan xedatutakoa aplikatzen ez denean, zergapetze maila baxuko erakunde eratzaille batek behar adina zergapetu gabeko etekinen arauari lotuta ordaindu beharreko zerga osagarriaren zenbatekotik osagarritik honako hau kenduko da: zerga errentak sartzeko arau onargarri baten arabera ordaintzen dituen zergapetze maila baxuko erakunde eratzaille bati egotzi ahal zaion zatia.”

Bost. 36. artikulua 1. apartatua ezabatzen da eta gainerako apartatuen zenbakiak aldatzen dira; honela geratzen dira:

“1. Foru arau honen 8. artikulua 3. apartatuan aipatutako zergadunei dagokien zerga osagarri primarioa, beste jurisdikzio batean zerga osagarri nazional bati lotuta dauden erakunde eratzaillei dagokienez, zero izango da zergaldian, jurisdikzio horrek zerga osagarri nazional onargarri bat eskatzen duenean, baldin eta horrek bermatzen badu zerga horri lotuta dauden erakunde eratzailen zerga maila efektiboak betetzen dituela portu seguruei buruzko nazioarteko itun baten baldintzak.

2. Foru arau honen 8. artikuluan aipatutako zergadunen zerga osagarria, «portu seguruei buruzko nazioarteko itun onargarriaren» baldintzak betetzen dituen jurisdikzio batean dauden entitate

eratzailerai dagokiena, zero izango da zergaldian, aipatutako nazioarteko itunean ezarritako moduan.

3. Artikulu honen 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, «portu seguruei buruzko nazioarteko itun onargarritzat» hartuko da jurisdikzio guztiek onartutako nazioarteko arau eta baldintza multzo bat, ELGEren Ereduzko Arauen aplikazio eremuan sartuta dauden taldeei jurisdikzio baterako portu seguru batez edo gehiagoz baliatzeko aukera ematen diena.”

Sei. 37. artikulua 3. apartatua eta 4. apartatuaren i) eta ii) letrak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“3. Talde bateko kide ez den erakunde batek (aurrerantzean, «erakunde eskuratzailerak») bat egiten duenean erakunde edo talde batekin (aurrerantzean, «erakunde eskuratuak»), eta ez erakunde eskuratuak, ez erakunde eskuratzailerak, bat egiteko eragiketa egiten den aldiaren aurreko azken lau zergaldi jarraituetako batean, finantza egoera bateratuak formulatu ez dituztenean, aipatutako eragiketaren ondoriozko taldea zergaren aplikazio eremuan sartuko da zergaldi horretan, baldin eta aldi horretako finantza egoera bakoitzean edo finantza egoera bateratuetan sartutako negozio zifraren zenbateko garbiaren batura 750 milioi eurokoa edo handiagoa bada.”

“i) Zatiketa eragiketa amaitu ondoko lehen zergaldian, zatitutako taldearen negozio zifraren zenbateko garbia 750 milioi eurokoa edo handiagoa bada.

ii) Zatiketa eragiketa amaitu ondoko bigarren eta laugarren arteko zergaldietan, zatitutako taldearen negozio zifraren zenbateko garbia 750 milioi eurokoa edo handiagoa bada, gutxienez, hiru zergaldi horietako bitan.”

Zazpi. 38. artikulua 1. apartatuaren f) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“f) Erakunde eratzaileraren zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak, zerga geroratuaren doikuntzaren zenbateko osoan alde aurretik sartu direnak, talde eskualdatzailerak itzulketatzat hartuko ditu, eta, aldi berean, erakunde eratzaileraren erosketa egin den zergaldian talde eskuratzaileran sortu direla ulertuko da, eta berriro hasiko da zenbatzen foru arau honen 20. artikulua 7. apartatuan itzulketarako ezartzen den 5 urteko epea.

Aurreko apartatua adierazitakoa ez zaie aplikatuko foru arau honen 20. artikulua 8. apartatuan zerga geroratuagatik itzulketarik egin behar ez duten pasiboak; kasu horretan, zenbatekoa berreskuratzen den zergaldian estalitako zergen zenbatekoa murriztuko dute.”

Zortzi. 40. artikulua 1. apartatuaren a) letraren lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“a) Baterako negozioa: azken erakunde nagusiaren finantzaketako egoera orri bateratuetan baliokidetasunean jartzeko metodoaren bidez edo integrazio proportzionalaren metodoaren bidez jasotzen diren finantza emaitzak dituzten erakunde guztiak, baldin eta zuzenean edo zeharka gutxienez % 50eko partaidetza badute.

Bederatzi. 42. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Aurreko apartatua aipatzen diren erakundearen irabazi onargarriei murrizketa aplikatuko zaie zergaldian: erakundearen partaidetza titularrei egotz dakizkiekeen irabazi onargarrien zenbatekoa, honako inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

a) Titularrek gutxienez gutxieneko zerga tasa nominala ordaindu behar izatea murrizketa egiten den zergaldia amaitu eta hurrengo 12 hilabeteetan amaitzen den zergaldian.

b) Arrazoizkoa izatea azken erakunde nagusiaren zerga estali doituena eta partaidetzen titularrak aipatutako irabazien gainean ordaindutako zergen zenbateko agregatua, murrizketa egin eta hurrengo 12 hilabeteen barruan amaitzen den zergaldian, irabazi horiek gutxieneko zerga tasa biderkatzearen emaitzako zenbatekoa edo gehiago izatea.”

Hamar. 45. artikulua 6. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“6. Artikulu honen 2. apartatuan aipatzen den erakundearen zerga osagarria kalkulatzeko eragiketa hauek egingo dira: erakundearen irabazi onargarrietatik erakunde horrentzat kalkulaturako substantzia ekonomikoari lotutako errentak kendu eta emaitzako zenbatekoa erakundearen zerga osagarriaren karga tasaz biderkatu.

Artikulu honen 2. apartatuan ezartzen den erakundearen zerga osagarriaren karga tasa positiboa izango da, hain zuzen ere gutxieneko zerga tasaren eta erakunde horren zerga tasa efektiboaren arteko diferentzia.”

Hamaika. 47. artikulua 3. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Aurreko apartatuan aipatutako zerga banaketaren metodoak honako hau ekarriko du:

a) Inbertsio erakunde baten edo aseguru inbertsioko erakunde baten irabazi onargarrien banaketak eta ustezko banaketak artikulu honen 2. apartatuan aipatutako erakunde eratzaillearen irabazi onargarrietan sartzea, erakunde horrek banaketa jasotzen duenean.

b) Inbertsio erakundeak edo aseguru inbertsioko erakundeak jasandako zerga estalien zenbatekoa, artikulu honen 2. apartatuan aipatzen den erakunde eratzaillearen zerga zorretik (zergapetze pertsonala, inbertsio erakundearen edo aseguru inbertsioko erakundearen banaketaren ondoriozkoa) kendu dena kredituaren metodoa aplikatuz, 2. apartatu horretan aipatzen den erakunde eratzaillearen irabazi onargarrietan eta zerga estali doitueta sartzea, banaketa jasotzen duenean.

c) Inbertsio erakundearen irabazi onargarritzat hartzea zergaldian inbertsio erakundearen edo aseguru inbertsioko erakundearen banatu gabeko irabazi onargarri garbien zatia, hurrengo 4. apartatuan zehaztutakoaren arabera, hain zuzen ere artikulu honen 2. apartatuan aipatzen den erakunde eratzailleak daukan partaidetza portzentajeari dagokiona, baldin eta banatu gabeko irabazi onargarri garbi horiek zergaldiaren aurreko hirugarren aldian gertatu badira.

Onar daitezkeen irabazi horiek gutxieneko zerga tasaz biderkatzearen emaitzako zenbatekoa zergaldian zerga maila baxua daukan erakunde eratzaille baten zerga osagarritzat hartuko da.

d) Inbertsio erakunde edo aseguru inbertsioko erakunde baten irabazi edo galera onargarriak eta zergaldiko irabazi horiei egotz dakizkiekeen zerga estali doituak zerga tasa efektiboaren kalkulutik kanpo geratzea, foru arau honen VI. tituluaren eta 45. artikulua arabera, apartatu honen b) letran aipatzen diren zerga estalien zenbatekoa izan ezik.”

Hamabi. Lehenengo xedapen iragankorra aldatzen da eta honela geratzen da:

“Lehenengoa. Zerga geroratuen ondoriozko aktiboen eta pasiboen eta trantsizioko zergaldian transmititutako aktiboen tratamendu fiskala.

1. Trantsizioko zergalditzat hartuko da foru arau honen 8. artikuluan aipatzen diren zergadunek lehen aldiz jurisdikzio bakoitzari buruz bertan ezartzen dena aplikatu behar duten lehen zergaldia.

Nolanahi ere, trantsizioko zergalditzat hartuko da dena delako jurisdikzioan foru arau honen laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa aplikatzeko ez den lehen aldia.

2. Trantsizioko zergaldian jurisdikzio bakoitzean aplikatzen den zerga tasa efektiboa zehazteko, bai eta segidako zergaldi bakoitzekoa ere, zerga geroratuen aktibo eta pasibo guztien balioa hartuko da kontuan zerga estalien ondorioetarako, betiere trantsizioko zergaldiaren hasieran zeuden jurisdikzioa osatzen duten erakundeen finantza egoeretan erregistratuta edo xehatuta badaude, hurrengo apartatueta arautzen diren salbuespenak gorabehera.

Balio hori hauxe izango da: aurreko paragrafoan aipatzen diren finantzetako egoera orrietan erregistratu edo xehatu denaren eta gutxieneko zerga tasa aplikatuta kalkulatzen denaren arteko txikiena.

Gutxieneko zerga tasa aplikatzearen emaitzako balioa kalkulatzeko eragiketa hauek egin behar dira: aplikatu gabe dauden eta finantzetako egoera orrietan erregistratuta edo xehatuta dauden kreditu fiskalei dagozkien zerga geroratuko aktiboak erregistratu ziren zergaldiaren aurreko zergaldiko zergaren tasa nominalaz zati eta horren emaitza gutxieneko zerga tasaz biderkatu.

Aurrekoa gorabehera, gutxieneko zerga tasatik beherako zerga tasan kontabilizatutako zerga geroratuen ondoriozko aktiboak gutxieneko zerga tasan balioetsi ahal izango dira, baldin eta zergadunak frogatzen badu aktibo hori foru arau honetan xedatutakoaren arabera onargarria izango zen galera bati egotz dakiokela.

Ez dira kontuan hartuko zerga geroratuen ondoriozko aktibo baten kontabilitate aintzatespenetik edo balioespen doikuntzetatik eratorritako aldaketak.

3. Foru arau honen IV. tituluan xedatutakoaren arabera irabazi edo galera onargarriak zehazteko zenbatu behar ez diren partidetatik eratorritako zerga geroratuen ondoriozko aktiboak ez dira kontuan hartuko aurreko 2. apartatuan aipatzen den kalkulua egiteko, baldin eta aktibo horiek 2021eko azaroaren 30aren ondoren eta trantsizioko zergaldia hasi arte edo trantsizioko zergaldiko finantzetako egoera orrien ondoren egindako transakzio batean sortu badira eta trantsizioko zergaldi horretako finantzetako egoera orrietan erregistratu edo xehatu badira.

Artikulu honen ondorioetarako, transakzioetat hartuko dira agintaritza eskudunen ebazpen eta erabaki guztiak, bai eta aurreko ebazpenak eta erabakiak aldatzea ere, baldin eta bestela izango ez zen zerga onura aplikatzeko eskubidea ematen badiote erakunde eratzailari.

Aurreko 2. apartatuan aipatzen den kalkuluan ez dira kontuan edukiko zerga geroratuen aktibo hauek, besteak beste:

a) 2021eko azaroaren 30aren ondoren hartutako edo aldatutako eta agintaritza eskudunak emandako erabaki batetik eratorritako zerga geroratuaren aktiboak, baldin eta erabaki horrek bestela izango ez zen zerga onura bat aplikatzeko eskubidea ematen badio erakunde eratzailari.

b) Erakunde eratzaila batek 2021eko azaroaren 30aren ondoren baliatutako hautapen baten ondoriozko zerga geroratuaren aktiboak, baldin eta hautapen horrek transakzio baten tratamendua aldatzen badu eta ondorioz aitortpena aurkeztuta dagoen zergaldi bateko zerga errenta gehitzen bada edo zerga administrazioak egiaztatu badu.

c) Zerga geroratuaren aktiboak edo pasiboak, aktibo edo pasibo baten zerga balioaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentziari dagozkionak, betiere zerga balioa enpresen mozkinen gaineko zerga baten arabera zehaztu bada eta zerga hori 2021eko azaroaren 30aren ondoren eta trantsizioko zergaldiaren aurretik sartu bada indarrean eta aurretik halakorik eduki ez duen jurisdikzio batean aplikatzen bada.

Aurreko 2. apartatuan aipatzen den kalkuluan honako hauek ere ez dira kontuan edukiko: enpresen mozkinen gaineko zerga bat indarrean jarri aurreko 5 urteetatik aurrera sortutako zerga

galerari dagozkion zerga geroratuaren aktiboak, 2021eko azaroaren 30aren ondoren eta trantsizio zergaldiaren aurretik sartu bada indarrean aurretik zerga hori eduki ez duen jurisdikzio batean.

Aurreko a), b) eta c) letretan adierazitako zerga geroratuaren aktiboei edo pasiboei dagozkien zerga geroratuaren sarrerak edo gastuak ere foru arau honen 20. artikuluan ezartzen den zerga geroratuaren doikuntzaren zenbateko osotik eta laugarren xedapen iragankorrean arautzen diren zerga estali erraztuetatik kanpo geratuko dira.

4. Aurreko apartatuan ezartzen dena gorabehera, foru arau honen 20. artikuluan arautzen den zerga geroratuaren doikuntzaren zenbateko osoa eta laugarren xedapen iragankorrean arautzen diren zerga estali erraztuak kalkulatzeko, espezialitate hauek hartuko dira kontuan:

i) Aurreko apartatuaren a) eta b) letretan arautzen diren zerga geroratuaren aktiboetarako, itzulketari dagokion zerga geroratuaren gastua zenbatuko da, baldin eta itzulketa hori 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen hasten diren zergaldietan gertatzen bada eta zergaldi horiek 2027ko ekainaren 30a baino lehen amaitzen badira. Aurreko apartatuaren c) lettran arautzen diren zerga geroratuaren aktiboetarako, itzulketari dagokion zerga geroratuaren gastua zenbatuko da, baldin eta itzulketa hori 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2027ko urtarrilaren 1a baino lehen hasten diren zergaldietan gertatzen bada eta zergaldi horiek 2028ko ekainaren 30a baino lehen amaitzen badira.

ii) Aipatutako epealdietan aurreko i) lettran xedatutakoaren arabera zenbatzen den zerga geroratuaren gastuaren zenbateko metatua ezin izango da izan hasieran erregistratutako zerga geroratuaren aktibo horietako bakoitzaren ehuneko 20 baino gehiago, eta zerga tasa aplikagarriaren arabera kalkulatu da edo, txikiagoa bada, gutxieneko zerga tasaren arabera.

5. Aurreko 4. apartatuan ezarritakoa gorabehera, ez dira zerga geroratuaren aktibo baten itzulketari dagozkion zerga geroratuaren gastuak zenbatuko, baldin eta aktibo hori eragin duena hauetako bat bada:

i) agintaritza eskudunak emandako erabakia, hain zuzen ere 3. apartatuaren a) lettran aipatzen direnetako bat, betiere 2024ko azaroaren 18aren ondoren hartu edo aldatu bada.

ii) erakunde eratzaille batek 2024ko azaroaren 18aren ondoren baliatutako hautapena, 3. apartatuaren b) lettran ezartzen diren atzeraeraginezko ondorioak sortzen dituen.

iii) aktibo edo pasibo baten zerga balioaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentzia, baldin eta zerga balioa 2024ko azaroaren 18aren ondoren indarrean sartutako enpresa mozkinen gaineko zerga baten arabera zehaztu bada, 3. apartatuaren c) lettran ezartzen denaren arabera.

4. apartatuan xedatzen denaren ondorioetarako, 3. apartatuaren a), b) eta c) letretan arautzen den zerga geroratuaren aktibo baten itzulketari dagokion zerga geroratuaren gastuaren zenbateko osoa ezin izango da izan inola ere aplikagarria den kontabilitate araudiaren eta 2024ko azaroaren 18ra arteko akordioaren arabera itzuli beharreko zenbatekoa baino gehiago.

6. 2021eko azaroaren 30aren ondoren eta trantsizio zergaldia hasi aurretik erakunde eratzaillearen artean aktiboak eskualdatuz gero, izakinak ez diren eskuratutako aktiboen balioa erakunde eskualdatzailearen finantzaketako egoera orrietan agertzen diren transmititutako aktiboen kontabilitate balioa izango da, eta balio horren gaineko zerga geroratuaren aktiboak eta pasiboak zehaztuko dira.

7. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, talde multinazionalak edo talde nazional handiak kontuan hartu ahal izango du eskualdatzetik eratorritako errentari lotutako zerga geroratuaren aktibo bat, baldin eta egiaztatu ahal bada erakunde eskualdatzaileak eskualdatze horretatik

eratorritako errentaren gaineko zerga ordaindu duela, eta inola ere ez da gehituko 3. apartatuan aipatzen den zerga geroratuaren aktiboa, 4. apartatuan ezarritakoa aplikatu behar denean izan ezik.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zerga geroratuen ondoriozko aktiboak ezin izango du honako bi zenbateko hauetatik txikiena gainditu:

i) Gutxieneko zerga tasa erakunde eskuratzailerak kokatuta dagoen jurisdikzioko legeriaren arabera zehaztutako aktiboaren zerga balioaren eta aurreko 6. apartatuan aipatutako balioaren arteko diferentziaz biderkatzearen emaitzako balioa.

ii) Erakunde eskualdatzailerak eskualdatzearen ondoriozko errentaren gainean ordaindutako zerga, eta, behar denean, erakunde eskualdatzailerak xedapen iragankor honen 2. apartatuan xedatutakoaren arabera kontuan hartuko zukeen galerari dagokion zerga geroratuaren ondoriozko aktiboaren zenbatekoa, baldin eta eskualdatzearen ondoriozko errenta ezin izan bada kendu eskualdatzearen zergaldiko zerga errenta kalkulatzeko.

Apartatu honetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga geroratuaren ondoriozko aktiboa dagokion aktiboaren balio galera erregistratuaren arabera aplikatuko da, edo, bestela, eskualdatzen denean edo baja ematen zaionean. Nolanahi ere, aktibo hori zerga geroratuagatik aitortzeak ez du murriztuko erakunde eskuratzaileraren zerga estali doituen zenbatekoa.

8. Foru arau honen 20. artikuluan 5. apartatuaren e) letran xedatzen dena gorabehera, trantsiziozko zergaldiaren hasieran dauden eta azken erakunde nagusiaren finantzetako egoera orri bateratuak egiteko erabiltzen den finantza kontabilitateko arau onargarri edo baimenduaren arabera prestatutako erakunde eratzaileraren finantzetako egoera orrietan erregistratutako edo banakaturako kreditu fiskalei dagozkien zerga geroratuen aktiboak kontuan hartuko dira trantsiziozko zergaldiko eta, behar denean, hurrengo zergaldietako zerga tasa efektiboa zehazteko.

Aurrekoa gorabehera, foru arau honen 20. artikuluan arautzen den zerga geroratuaren doikuntzaren zenbateko osotik eta laugarren xedapen iragankorrean arautzen diren zerga estali erraztuetatik kanpo geratuko dira zerga geroratuaren ondoriozko sarrerak edo gastuak, zerga geroratuaren ondoriozko aktibo eta pasiboen itzulketari dagozkionak, 3. apartatuaren a), b) eta c) letretan adierazitakoak, 4. apartatuan ezarritakoa aplikatu behar denean izan ezik.

9. Aurreko apartatuan aipatutako zerga geroratuen ondoriozko aktiboak kontsignatu diren balio gutxieneko zerga tasa baino txikiagoa erabiliz kalkulatu bada, zerga geroratuen ondoriozko aktibo horien zenbatekoa erakunde eratzaileraren finantzetako egoera orri bateratuetan agertzen diren zerga geroratuen aktiboen zenbatekoa izango da.

10. Aurreko 8. apartatuan aipatutako zerga geroratuen ondoriozko aktiboak kontsignatu diren balio gutxieneko zerga tasa baino handiagoa edo bera erabiliz kalkulatu bada, zerga geroratuaren ondoriozko aktibo horien zenbatekoa honela kalkulatu da: aplikatu gabe dauden kreditu fiskalei dagozkien zerga geroratuen ondoriozko aktiboak, finantza kontabilitate onargarriaren edo baimenduaren arauaren arabera prestatutako finantza egoera orrietan erregistratuak edo banakatuak azken erakunde nagusiaren finantza egoera bateratuak egiteko erabilitako finantza kontabilitatearen arau onargarriaren arabera, erregistratu ziren zergaren trantsizio aldiaren aurreko tasa nominalaz zatituko dira eta horren emaitza gutxieneko zerga tasaz biderkatuko da.

Trantsiziozko zergaldiaren ondoko zergaldi batean jurisdikzio baten zerga tasa aldatzen denean, zerga geroratuen aktiboen zenbatekoa aurreko paragrafoan zehaztutako formularen arabera kalkulatu da berriro, zerga tasaren aldaketa gertatu den zergaldiaren hasieran azken erakunde nagusiaren finantza egoera bateratuak egiteko erabiltzen den finantza kontabilitateko arau onargarriaren edo baimenduaren arabera prestatutako finantzetako egoera orrietan agertzen ziren kreditu fiskalen zenbatekoa mantenduz. Zerga tasa aldatzearen ondorioz kalkulu berrietik eratorritako zerga geroratuen aktiboen zenbatekoaren aldaketa ez da sartuko zergaldi horretako

zerga geroratuaren doikuntzaren zenbateko osoan. Kalkulu berria egin den zergaldian eta hurrengoetan geroratutako zergen doikuntza zehazteko, kalkulu berriaren ondoriozko zerga geroratuaren aktiboaren zenbatekoa hartuko da abiapuntutzat.

11. Aurreko 6. apartatuan xedatutakoaren salbuespen gisa, taldeak egiazta dezakeenean erakunde eskualdatzaileak 6. apartatu horretan aipatutako aktiboak eskualdatzetik eratorritako errentaren gaineko zerga ordaindu duela, eta zerga hori gutxieneko zerga tasa eskualdatzetik eratorritako errentaz biderkatzearen emaitzaren beste edo gehiago bada, hurrengo paragrafoan ezartzen dena aplikatu ahal izango du.

Kasu horretan, erakunde eskuratzzaileak eskuratze datan erregistratutako kontabilitate balioaren arabera baloratu ahal izango dira eskuratutako aktiboak, erakunde eskuratzzailearen finantzetako egoera orriak egiteko erabilitako finantza kontabilitateko arauaren arabera zehaztu bada balio hori, eta ez da aplikatuko aurreko 7. apartatuan xedatutakoa.

12. Baldin eta jurisdikzio bateko portu segurutzat jotzen den zerga osagarri nazionalaren araudian ez bada ezartzen 3. eta 4. apartatuetan arautzen dena, talde multinazionalak jurisdikzio horretan zerga osagarri nazionalarengatik ordaindu beharreko zenbatekoa ezin da izan zero, foru arau honen 36. artikulua 2. apartatuan xedatzen denaren arabera.

Aurreko paragrafoko kasuan talde multinazionalak foru arau honen 26. artikulua 4. apartatuan xedatzen dena aplikatu ahal izango du.”

Hamahiru. Laugarren xedapen iragankorren 3. apartatuaren b) letraren i) letra eta c) letrak aldatzen dira eta honela gelditzen dira:

“i) Inbertsio erakundea eta inbertsio erakunde horren partaide diren erakunde eratzzaile guztiak jurisdikzio bereko egoiliarak badira.”

“c) Xedapen iragankor honen 2. apartatuan ezartzen dena ez da aplikatuko azken erakunde nagusiek egoitza duten jurisdikzioan, erakunde horiek foru arau honen 42. artikuluan xedatzen dena aplikatzen duten erakunde gardenak direnean, ez dibidenduen kengarritasun araubideari lotutako azken erakunde nagusietan, erakunde horiek foru arau honen 43. artikuluan xedatzen dena aplikatzen duten erakundeak direnean, salbu eta partaide bakarrak pertsona onargarriak badira.

Azken erakunde nagusi batek foru arau honen 42. edo 43. artikuluetan xedatzen dena aplikatzen badu, enpresa mozkinak kargatzen dituen zergaren edo izaera bereko edo antzeko izaerako zergaren aurreko emaitza pertsona onargarri bati esleitu edo banatu beharreko proportzioan murriztuko da.

c) letra honetan ezartzen denaren ondorioetarako, pertsona onargarritzat hartuko dira foru arau honen 42. artikulua 2. eta 3. apartatuen a) eta b) letretan ezartzen direnak, artikulua hori aplikatu behar denean, eta foru arau honen 43. artikulua 4. apartatuaren a), b) eta c) letretan ezartzen direnak, artikulua hori aplikatu behar denean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA